



**2011ko abenduaren 19ko Arartekoaren Ebazpena. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailari gomendatzen zaio ondoriorik gabe utz dezan Sarrerak Bermatzeko Errenta berriz jasotzeko ukapena.**

### Aurrekariak

1. Erreklamazio-egilea, sarrerak bermatzeko errenta (SBE) baten titularra da. 2010eko irailean, prestazio hori eten egin zen, zeren eta Gasteizko Udalak herrialdetik zenbait irtenaldi izan zirela egiaztatu baitzuen. Ondorioz, eten egin zen SBE. Azaroan, prestazioa berriz jasotzeko eskatu zuen erreklamazio-egileak, prestazioa eteteko ziorik ez dagoela irizten baitzion. Arabako Foru Aldundiak, apirilaren 5ean, prestazioa berriz jasotzea ukatzea erabaki zuen, erreklamazio-egileak Euskadiko Autonomia Erkidegoan benetan bizi izateko beharkizuna bete ez duelakoan.

Kexaren zioa SBE berriz jasotzeko eskaera ukatzea denez gero, ez da egingo prestazioa aurretik eten izanari edo horren kausei buruzko aipamenik.

2. Aurkezturiko dokumentazioa baloratu ondoren, Arartekoak informazio-eskaera egin zion foru erakundeari 2011ko maiatzaren 17an. Eskaera horretan, galdetu genuen zergatik uste zuen Arabako Foru Aldundiak erreklamazio-egileak ez duela betetzen EAEn benetan bizitzeko baldintza.

3. Haren erantzunean, uztailaren 6an, kexagileak atzerrira hainbat bidaiara egin zituela jakinarazi ziguten eta, beraz, aldundiaren iritziz, ezinezkoa da gizarteratze-prozesua praktikan jartzea. Data hauetan izan ziren irtenaldiak:

2008/07/31tik 2008/08/28ra  
2008/12/06tik 2008/12/13ra  
2008/12/18tik 2009/01/06ra  
2008/07/23tik 2009/08/22ra  
2010/07/01etik 2010/07/09ra  
2010/12/17tik 2011/01/17ra

4. Emandako informazioa nahikoa ez dela iritzita, beste informazio-eskaera bat igorri zen abuztuaren 24an, Arabako Foru Aldundiaren eskuetan dauden datuez berriaz galdetzeko. Datu horiekin egiaztatu egingo litzateke kexagilea azken hamar urteetatik bost urtez EAEn benetan bizi izan ez dela (Gasteizen baitago erroldatuta 2000ko abenduaren 4tik), baita udalerrian bizitzeko baldintza bete ez dela ezartzeko pertsona batek etxetik kanpora egon behar duen egun kopurua ere, betiere kopuru hori zehazteko oinarri izan den arau-oinarria aipatuta.

Azaroaren 8an eman zitzaion erantzuna bigarren informazio-eskaera horri. Kexagilea Gasteizen azken hamar urtean benetan bizi ez dela ezartzeko foru erakundeak oinarritzat erabili dituen datuei dagokienez, honako hau helarazi zaigu:





*“En lo referente a los datos que obren en poder de la Diputación Foral de Álava que demuestren que el reclamante (...) no ha residido en la CAPV durante cinco años consecutivos desde el 23/02/2000, le informamos que fue alta en el padrón del municipio de Vitoria-Gasteiz procedente del extranjero con fecha 04/12/2000, no constando datos obrantes que demuestren la residencia efectiva durante cinco años continuados de los últimos diez inmediatamente anteriores, si bien con los datos de su pasaporte se puede verificar que en los últimos tres años ha pasado periodos de tiempo fuera del municipio donde percibe la Renta de Garantía de Ingresos que demuestran una no residencia efectiva, por lo que si D. (...) considera que puede aportar documentación que verifique que ha residido en la CAPV durante cinco años consecutivos de los últimos diez años, debe ser el propio usuario quien aporte dicha documentación y demuestre su residencia efectiva.”*

Bestalde, pertsona bat EAEn bizi ez dela erabakitzeke EAetik kanpora eman behar duen denborari dagokionez, berriz, hauxe esan zaigu:

*“(...)en cuanto al número de días consecutivos que, a juicio de esta institución ha de estar ausente de su domicilio una persona perceptora de RGI para considerar que no reside en el domicilio que se señale, le informamos que no está regulado un número máximo de días, sino que lo que existe en todo caso es una valoración profesional de cada expediente, detectándose en el caso que nos ocupa, varias salidas de larga duración y continuadas que implican la no posibilidad de trabajar una verdadera inclusión social. Recordar que la prestación suspendida, tiene como finalidad la cobertura de las necesidades básicas y no a la financiación de traslados y viajes continuados”.*

### Gogoetak

1. SBEren araudian ezarrita dago prestazioa eskatzen duten pertsona guztiek nahitaez erroldatuta egon behar dutela eta EAEn benetan bizi direla eskaera aurkezten den data baino urtebete lehenagotik gutxienez. Hala, eskakizun hau ezarri da Sarrerak Bermatzeko Errentarako eta Gizarteratzeko 18/2008 Legearen 16.b artikuluan: *“Prestazioa eskatu den udalerrian erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan benetan bizitzea eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenagotik gutxienez”*. Ildo beretik doa Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 Dekretuaren 9.2. artikulua: *“Prestazioa eskatzen den udalerrian erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea, eskaera aurkeztu zen unean eta prestazioa jasotzen den denbora guztian, eta eskaera aurkezteko dataren aurreko urte osoan gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta bertan bizi izatea. Aldez aurreko gutxieneko epe hori bete ezean, eskatzaileak Euskal*



*Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta eta bertan benetan bizi izan beharko dute bost urtez jarraian aurreko hamar urteen barruan”.*

Horri dagokionez, erakunde honetan uste dugu Arabako Foru Aldundiak aplikaturiko irizpidea izan daitekeela SBE jasotzen duten pertsonak babesik gabe uzten deneko egoeren jatorria, zeren eta prestazioari buruzko araudian ez baita idatz-zati batean ere aipatzen udalerritik kanpora hilabetez ez egoteak etenaldia dakarrenik (baina bai bizikidetz-unitateko kideen kopuruaren balizko aldaketa, 18/2008 Legearen 41.1.a artikulua, ezta udalerrian benetan bizi izatearen kontrako frogara gisa ere. Zehazkiago, hauxe dio foru erakundearen erantzunak absentei buruz: “(...) *implica(n) la no posibilidad de trabajar una verdadera inclusión social, al considerarse un número de días excesivos ausente del municipio en el que se le ha concedido la prestación y no destinar la prestación a la cobertura de las necesidades básicas*”, Hori dela-eta, erakunde horrek dio ezinezkoa dela betetzea 18/2008 Legearen 1. artikulua dakartzan helburuak. Interpretazio horretatik arazo bat gerta daiteke gure ustez: ez dela zehazten SBEn jasotzailea etxetik kanpora zenbat egunetan izan daitekeen horren ondorioz prestazioa eten dakion. Gainera, erakunde honetan uste dugu pertsona bat SBE jasotzeko eskubidearen titularra izatea ez dela eragozpena lurraldetik kanporako bisitak egiteko, bereziki etorkinak direnean, kasu honetan bezala, Espainiako Konstituzioaren 19. artikuluan ibiltzeko ezarritako askatasunari dagokionez.

ldo horretan, eta SBE etetearen ziozko baldintzak galdu izanari dagokionez, 147/2010 Dekretuaren 43.1.a artikuluan ezarritakoa dago, berariaz udalerrian bizi izateari buruzkoa: “*Diru-sarrerak bermatzeko errenta (edozein izanik ere modalitatea) eten egingo da, honako arrazoi hauengatik: 1.– Eskubidea onartzeko eskatutako betebeharren bat aldi baterako galduz gero:a) Ohiko bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko lurralderen batean izatea aldi batez, baldin eta aldaketa hori hemezortzi hilabete baino denbora-tarte luzeagorako baldin bada eta aldi baterako lanak, pertsonaren bat zaindu beharrak, aldi batez egoitzaren batean sartzeko, bereizteko edo aldi baterako premiakotzat jotzeko moduko arrazoiren batengatik baldin bada. Ezaugarri horiek dituen edo ez Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak erabakiko du, kasuan kasuko txosten teknikoak idatzita. Kasu horietan, adierazitako hemezortzi hilabetean igaro baino lehen Autonomia Erkidegora itzuliz gero, dekretu honen 9.2 artikuluan eskatutako*”. Baldin eta legegileak egun batean ezarri bazuen BSE jasotzen duten pertsonak etxez alda daitezkeela horrek etenaldirik eragin gabe, erakunde honen ustez, etxetik kanpora hilabetez egoteagatik BSE etetea edo berreskuratzeko agindua ematea ezin har daiteke 18/2008 Legearen 1. artikulua-erikiko interpretazio bateragarritzat, foru erakundeak dioten moduan. 43.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, udalerrian benetan bizitzeko baldintza galdutzat hartzeko, beraz, lurraldetik kanpora izan behar da askoz denbora luzeagoan, arrazoi beragatik BSE berriz jasotzea ukatzeko Foru Aldundiak aintzatetsitakoa baino denbora luzeagoan.





Hala ere, gure ustez beste argudio bat dago kexagileari SBE eteteko eta berriz jasotzeko erabakia birplanteatzeko. Baldin eta, Arabako Foru Aldundiak interpretatzen duen moduan, 18/2008 Legearen 16. b artikulua eta 147/2010 Dekretuaren 9.2. artikulua bete ez badira (erakunde honen aburuz ez da hala gertatu), garrantzizkotzat jotzen dugu arau horien azken paragrafoan ezarritakoa kontua hartzea. Hauxe xedatu da: *"Aldez aurretiko gutxieneko epe hori bete ezean (urtea esan nahi du) eskatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan errolatuta eta bertan benetan bizi izan beharko dute bost urtez jarraian aurreko hamar urteen barruan."* Kexagileak 11 urte daramatza bizi izaten Gasteizen, eta bertan ari dira ikasten bere hiru alabetako bi San Ignacio ikastetxean. Hortaz, etenaldia galarazteko urtebetez udalerrian benetan bizi izan dela egiaztatu beharraren gainean Aldundiak emandako argudioa onartuta ere, Foru Aldundiak emandako informazioa ikusita, ez dago azken hamar urteetatik bost urtetan benetan bizi izateko presuntzioa desegiteko frogarik. Horrenbestez, nahiz eta gure informazio-eskaeraren erantzunean zerrendaturiko absentiak 18/2008 Legearen 16.b baldintza bete ez izateari buruzko froga izan, frogatzeke dago kexagilea azken hamar urteetatik bost urtetan benetan udalerrian bizi izan ez dela. Inguruabar hori egiazta lezake kexagileak lan-bizitzaren txostena edo alaben ikastetxeko matrikula aurkeztuta, esate baterako.

lido horretatik, jarduteko modua espediente bakoitzaren "lanbide balorazioa" dela jakinarazi zaigu, eta ez dago araututa pertsona batek etxetik kanpora eman dezakeen gehieneko egun kopurua. Alabaina, kasu honetan nahiz Arartekoak jakin izan dituen beste batzuetan, hilabetekoa izan ohi da ezarritako epealdia, baina horrek ez du arau-oinarririk. Muga hori objektiboki ez ezartzeak, gure ustez, segurtasun ez handia eragiten du jasotzaileengan, zeren eta indarreko arautegian ezarritako betebeharrez gain, muga jartzen baitzaio autonomia erkidegotik kanpora eman dezaketen egun kopuruan. Izan ere, muga hori zehaztu gabea denez gero, babesik gabeko egoera argiak ager daitezke.

Azpiparratzekoa da bizikidetzaren unitateko kide baten Estatutik kanporako irtenaldiak izateak, aplikatu beharreko arautegiaren interpretazio murriztaile baten arabera denez, etenaldia ekarri duela bost pertsonaren onurarako prestazioan, horietako hiru adingabeak. Beraz, egoera txarrean gelditu da familia osoa.

2. Bestalde, foru erakundeak eskubidea eten du kexagileak aurkezturiko datuak baloratu gabe. Datu horiek frogatzen dutenez, atzerrira zenbait alditan joan bada ere, Gasteiz hirian bizi da benetan. Arabako Foru Aldundiari dagoeneko beste inoiz egin zaion gomendioaren arabera, argi zedarritu behar da zein izan behar duten udalerrian benetan bizi izatea egiaztatzeko kontuan hartuko diren ziurtagiriak. Agiriok baloratzeko zenbait irizpide objektibo ez ezartzeak egoera jakin bat dakar, hain zuzen ere kasu





bakoitzaren arabera baliozkotasuna ezarrita: erreklamazio-egileek, kasu honetan bezala, ez dakite zein agiri aurkeztu behar duten ondorio horietarako.

Izan ere, BSE berriz jasotzea ukatu da kexagileak udalerrian azken urtean nahiz azken hamar urteetatik bost urtean benetan bizi izatea egiaztatzen duten frogagiriak aurkeztu ondoren, baina aldundian ez da jasota utzi kexagileak eginiko irtenaldi kopurua baino. Horregatik, gure iritziz ez da aurkeztu frogarik errolda-agiriak nahiz kexagileak aurkezturiko agiriek udalerrian bizi izateari buruz emandako presuntzioa desegiten duenik. Alabaina, hauxe adierazi zigun Arabako Foru Aldundiak erantzunaren bigarren idazkian "(...) *debe ser el propio usuario quien aporte dicha documentación y demuestre su residencia efectiva*". Ez zaigu jakinarazi aurkezturiko dokumentazioari buruz foru erakundeak emandako balorazioa zein den. Foru administrazio horri gomendatu izan zaionez, frogagiriaren zehaztasunik ezak eragindako arazoak konpondu egingo lirateke agirion baliozkotasunari buruzko zenbait irizpide objektibo ezarriko balira.

Azken finean, eskubide bat eteteari buruzko manu baten gaineko interpretazio murriztailea, gure ustez, zantzuak daudenean egin behar da, hain zuzen ere Arabako Foru Aldundia ziur denean ez dela legez ezarritako eskubidea ezesten ari funtsezko ziorik izan gabe.

3. Azkenik, garrantzizkoa dela irizten diogu kontuan hartzea ere gure lehen informazio-eskaerari erantzuna emateko idazkian zerrendaturiko absentziak gehienbat SBE eman aurreko aldiei dagozkiela; emakida hori 2010eko otsailaren 23an eskatu zen. Gure iritziz, ez da koherentea egun batean absentzia horiek ez izatea SBE ukatzeko zioa eta orain, aldiz, prestazioa eteteko eta berriz jasotzea ukatzeko kausa izatea manu berak oinarritzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**52/2011 GOMENDIOA, abenduaren 19koa, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzu Sailari egina:**

Beren beregi zehaztu ditzala zein diren udalerrian benetan bizi izatea egiaztatzen duten agiriak edo, horiek izan ezean, oinarritzko zein baldintza bete behar diren agiriok xedea betetzen dutela ulertzeko.

Argi eta zioak emanda ezar dezala zenbat egunez izan daitekeen pertsona bat Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora SBE jasotzeko eskubideari kalterik ez eragiteko.





Horrenbestez, baldin eta kexagileak aurkezturiko agirien artean udalerrian benetan bizi dela egiaztatzen duten agiriak badaude eta gainerako baldintzak betetzen badira, sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea berriz izan dezala, eskubidea berriz jasotzeko eskaeraren egunetik hasita.

